



Arartekoaren 2024R-1055-23 Ebazpena, 2024ko martxoaren 20koa. Honen bidez, Lapuebla de Labarcako Udalari gomendatzen zaio erantzun diezaiola kexagileak egindako ingurumen salaketari eta Euskadiko ingurumen-administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearekin bat etorritz, eskorta-jarduera arautzeko neurri zuzentzaileak eska ditzala

Aurrekariak

1.- 2023ko apirilaren 14an Lapuebla de Labarcako bizilagun batek kexa jarri zuen Arartekoan Lapuebla de Labarcako Udalak ezer ez zuelako egiten bere etxe ondoko txakurtegiko zaratak eta usainek sortzen zioten enbarazua konpontzeko.

Zehazki, azaldu zuen bere etxetik gertu dagoen orube batean hamaika txakur bizi zirela kanpoan, eta beste hiru txakur gehiago finkaren barruan. Horregatik uste zuen aipaturiko orubea txakurtegi gisa erabiltzen zela, jarduera hori burutzeko beharrezko baimenik gabe eta gutxieneko osasungarritasun- eta segurtasun-baldintzak bete gabe.

Halaber, salatu zuen finkaren baldintzak desegokiak zirenez, txakurtegia usain arazo larriak sortzen ari zela.

Gainera, kexagileak animalia horien zaunkek sortzen dituzten zarata enbarazu larriak aipatu zituen; horien ondorioz, behin baino gehiagotan aldatu behar izan baitute etxez, atsedean hartu ahal izateko.

Arazo larri horri irtenbidea aurkitze aldera, 2022ko uztailaren 14an eta 2023ko urtarrilaren 16an bizilagun horrek kexa aurkeztu zuen Lapuebla de Labarcako Udalean, eta erreklamazio honen egunean ez zuen inolako erantzunik ezta ere aurrerapenik izan bere eskaerak.

Beste alde batetik, kexagileak aurkezturiko salaketen arabera, hainbat arau-hausteren zantzuak daude Euskal Autonomia Erkidegoan etxeko animaliak babesteko araudiari zein txakurrak edukitzeari buruzko udalerriko ordenantzari dagokienez. Hala ere, oraindik ez zen inolako neurririk hartu eragindako kalteak ekiditeko.

2.- Arartekoak, aipatutako espedientearen ohiko izapidetzean, Lapuebla de Labarcako Udalari erreklamazio horren inguruko informazioa eskatu zion.

3.- 2023ko irailaren 26an Lapuebla de Labarcako Udalak eskatutako informazioa eman zuen; bertan azpimarratzen zuen udalak zenbait jarduketa egin zituela





kasuaren inguruabar zehatzak ezagutzeko eta jakiteko ea komeni ote zen zehapen-prozedura hastea.

- 2023ko otsailaren 22an, udal-arkitekto teknikoak ikuskaritza-bisita bat egin zuen enbarazuen foku gisa adierazitako lurzatira. Bisita horretan ikusi zuen zortzi txakur zeudela lau txakurtegitan banatuta (hiru txakur txakurtegi batean, bi txakur bi txakurtegitan eta txakur bat beste txakurtegi batean). Era berean, ondorioztatu zuen txakurtegiko higiene-baldintzak egokiak zirela, eta hormigoizko zolata zuela hustubidearekin, eta baita garbiketa-lanetarako ur-instalazioa ere. Ikuskaritza-txostenak zioen txakurtegiak estalita zeudela, sabaian ura banatzeko sistema zutela eta garbi zeudela. Txakurtegiek ohandte moduko upel bat eta ur-ontziak dituzte. Bisitan, udal-teknikariek ikusi zuten txakurrek zaunka egiten zirela pertsonen aurka. Kasu honetan, esan zuten **zaunka egiten ari zireneko zarata-maila altua zela, 60-80 dB artekoa, baina "sonometro homologatu batekin proba teknikoak egin beharko litzatekeela"**.

Azkenik, esan zuten lurzatia **hiri-lurzorua zela eta bizitegi-zona gisa sailkatuta zegoela**.

- 2023ko uztailaren 5ean udal-idazkariak txostena idatzi zuen salatutako arau-hauste posibleak ikertzeko jarraitutako jarduketan inguruan.
- Txostenaren arabera, Nukleo zoologikoen 81/2006 Dekretua aplikatu behar zaie txakurtegiei bakar-bakarrik urtebete baino gehiagoko 10 txakur edo gehiago dituztenean edo 20 m² baino gehiagoko azalerako instalazioak dituztenean.
- Ingurumenaren ikuspegitik, Euskadiko ingurumen-administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen I.C eranskina aipatzen zuen; horren bitartez, hiri-lurzoruko txakurtegiek sailkatutako jardueraren lizentzia izan behar dute. Aurretiazko jakinarazpenaren erregimenari dagokionez, nahiz eta aipatzen duen eskagarriak zirela abeltzaintza-ustiategi eta etxe-eko eskorta txikietarako, ondorioztatu zuen kasu honetan ez zela aplikatzekoa, *"ez zirelako ganadu-txakurrak"*.

Bestalde, esan zuen La Puebla de Labarcako txakurrak izateko eta babesteko ordenantza arautzailearen 6. artikuluan zenbait muga ezartzen direla norbere etxean txakurrak izatearekin lotuta, betiere, instalazioen baldintzak eta baldintza higieniko-sanitarioak kontuan hartuta, eta ez dela inolako arrisku edo deserosotasun objektiborik egon behar bizilagunentzat, bestelako herritarrentzat, txakurrarentzat edo beste animalia batzuentzat.

- Txostenak zioen Lapuebla de Labarcako Udalak errekerimendua bidali zela inguruko bizilagunei jakiteko ea enbarazurik sufritzen zuten, eta emaitzak ez





zuela egiaztatzen salatutako zarata edo usainengatiko enbarazu-maila edo horien maiztasuna. Hala, inguruko bizilagunen askotariko deklarazioak jasotzen zituen; horiek, beren etxebizitzetan ez zuten animalien zaratengatiko edo jabetza horretan sortutako kirats posiblearengatiko enbarazurik sufritzen.

- Udalaren txostenak aipatzen zuen Lapuebla de Labarcako hiru-lurzoruan partikularren txakurtegiak daudela, bereziki, ehiza-animalientzat.
- Laburbilduz, txostenak zioen jabetza pribatu batean hamar animalia baino gutxiago izatea ez zela ez bateragarria nukleo zoologikoaren ezta sailkatutako jardueraren kontzeptuan.
- Modu horretan, ondorioztatzen zuen bere balorazioan salatutako egitateak ez zirela zehagarriak, *"eta salaketa auzokoen arteko harreman zibiletara bideratu behar zela"*, albo batera utzi gabe animaliak izateko Ordenantzaren 6. artikuluaurreikuspenak ez betetzea.

Azaldutakoa ikusita, Arartekoak egokitzen jo du honako gogoeta hauek egitea kexaren muinari buruz:

Gogoetak

1. Aurretiaz adierazi behar da administrazio publikoek, herritar salatzaileekin dituzten harremanetan, jarraitutako izapideen trazabilitate egokia bermatu behar dutela, dagokion prozedura administratiboaren bidez.

Horrela, herritarrek administrazio onerako duten eskubidea dela-eta, administrazio publikoek nahitaez bermatu behar dute prozedurarekiko eskubidea, gutxienez, honako hauetan: administrazio publikoek bertan aurkezten diren idatzien hartu-agiriak bidaltzea herritarrei, administrazio publikoek dagokion prozedura ofizioz sustatzea eta planteatutako kontu eta errekurso guztiei arrazoizko epean eta moduan erantzutea.

Prozedura administratiboaren eskubidea interesdunak diren herritar orori dagokie; edo, gaia dela-eta, ekintza publikoa gauzatzeko aitorpena daukatenei, ingurumenaren esparruan aurreikusita dagoen moduan.

Hortik ondorioztatzen da administrazio publikoei zuzendutako idazkiak aurkezteko, beti eta nolana ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean (39/2015 Legea) aurreikusitako administrazio-izapideak egin behar direla.





Kasu horretan, 39/2015 Legearen 21. eta 88. artikuluetan zehaztuta dago berariazko ebazpena ematearen betebeharra. Ebazpen hori arrazoitua izan behar da eta bat etorri behar da eskariaren muinarekin eta gehienez ere hiru hilabeteko epean eman behar da.

Administrazio onaren printzipio horiek erreklamazioan azaldutako bezalako kasuetan aplikatu daitezke herritar batek salaketa jartzen duenean bere etxe ondoko txakurtegi bateko zarata edo usainek sortutako enbarazuen arazoa konpontzeko.

2. Ingurumen-salatzaillearen paperaren inguruan, salaketa bat aurkezten denean, horretarako administrazioak aurreikusitako komunikazio-formatuetatik edozein erabiltzen dela-ere, tramitazio administratiboa egiten da; hala egin behar da, behintzat, salaketak prozedurari buruzko legerian eskatutako formazko baldintzak betetzen baditu eta salaketa jartzen duen pertsonaren asmoa administrazioa kutsadura-gertakari baten jakitun jartze hutsetik haragokoa bada, administrazioak jardun dezan.

Gogoan izan behar da ofiziozko prozedurak organo eskudunaren erabaki baten bidez hasten direla, dela haren ekimenez, dela salaketa bat jarri delako. Horrela, salaketa idazki bat aurkezten denean, beti eta kasu guztietan, organo eskudunak tramitazio administratiboa egin behar du eskaeran azaldutako auzia baloratzeko, araudi egokian aurreikusitako ingurumen-kontrolerako ahalak erabil daitezzen, hala behar denean.

Ohartarazi behar da indarrean dagoen ordenamendu juridikoak garrantzi handia ematen diola ingurumen-salatzaileri, izan ere, horrek indarrean dagoen Euskadiko ingurumen-administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 17. artikuluan ezarritako ekintza publikoa egikaritzuz jarduten du.

Kasu horretan, ingurumen-salatzailleak adierazten duenean alderdi interesdun gisa jardun nahi duela, administrazio-prozedurari buruzko araudiak aukera ematen dio administrazio-espeditatearen izapidetze osoan zehar esku hartu eta parte hartu dezan, ingurumen-arloko legezkotasuna berrezartzeko neurriak eta ingurumen-kalteengatiko erantzukizuna eskatzeko, eta, halaber, ingurumen-arloko legerian xedatutakoaren kontrako arau-hausterik egin ote den zehazteko.

3. Kontuaren muinari dagokionez, salaketak berariaz aipatzen zituen animalien zaunkek bere etxe barnean sortzen zuten gehiegizko zaratarengatiko enbarazuak, horiengatik ezin baitzuen bere etxean ongi atseden hartu.

Kexagileak bere etxean eta inguru egoki eta osasuntsu batean duintasunez bizitzeko duen eskubidea Espainiako Konstituzioak babesten duen norbere eta





familiaren intimitate-eskubideari lotuta dago (Espainiako Konstituzioaren 18., 43., 45. eta 47. artikulua). Horrenbestez, udalaren ardura da udalerriko jabetzaren batean animaliak daudelako zaratek eta usain-pilaketek sortutako enbarazuengatik egiten diren salaketetan jardutea.

Horrekin lotuta, eta aintzat hartuta kexaren xede nagusia salatzailearen etxean animaliek sortutako enbarazuak salatzea zela, Arartekoak ebazpen honetan horixe aztertuko du, albo batera utzi gabe udalak animalien ongizatea zaintzeko dituen eskumenak.

Analisi horretan Arartekoak uste du ingurumen-ikuspegitik salatutako jarduera eta instalazioa **sailkatutako jardueraren aurretiazko jakinarazpenaren** menpe daudela ([Euskadiko ingurumen-administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen](#) I. D eranskina), ingurumena, herritarrak edo ondasunak kaltetu ditzakeen, kalteok sortzeko arriskuak sor ditzakeen edo herritarrei enbarazu egin diezaieketen jarduera baita.

10/2021 Legearen eranskinaren zerrendan daude abeltzaintza-ustiapen txikiak eta etxeke eskortak, baldin eta horien kopurua txikia izanik, sailkatutako jardueraren udal-lizentziarik behar ez badute.

Etxeko eskortaren kontzeptuaren barne sartu beharko lirateke etxeetan ohiko moduan etxeke animaliak gordetzeko erabiltzen diren espazioak; animalia horien artean daude txakurrak (etxeke animaliarik ohikoenak), modu osagarrian ehizarako erabiltzen diren kasuan barne.

Ehiza-txakurrak lagun egiteko animalia laguntzaile gisa sailkatuta geratu dira (Etxeko animaliak babesteko ekainaren 30eko 9/2022 Legearen 2.4 artikulua) eta, ikuspegi horretatik, legeak zenbait betebeharrak ezartzen dizkie animalien titularrei; besteak beste, neurriak ezartzea animaliak izateak, edukitzeak edo zirkulatzeak kalterik, beldurrik, eragozpenik edo arriskurik edo mehatxurik sor ez dakizkien pertsoneri, animaliei edo gauzei. Hala, animaliek gizarteratze- eta heziketa- probak gainditu beharko dituzte eta arazo horiek konpontzeko tratamenduak gauzatuko dituzte.

Hori horrela, Arartekoak uste du kasu horietan abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 56. artikuluan eta hurrengoetan adierazitako baldintzak eta betebeharrak aplikatu behar direla. Hau da, nahitaezkoa da aurretiazko komunikazioa eta etxeke eskorta-jardueraren **proiektua edo deskribapen-memoria** aurkeztea eta eskortaren efektu edo ingurumen-inpaktu nagusiak azaldu beharko dira kokatuta dagoen inguruarekin lotuta, bereziki isurien, hondakinen, lurzoruen eta **kutsadura akustikoaren** inguruan. Bertan azalduko dira baita ere zeintzuk neurri ezarri diren ingurumenean, herritarrengan edo ondasunetan sor dezakeen inpaktu posiblea gutxitzeko.





Ziurtagiria teknikari eskudunak sinatu beharko du eta, hala badagokio, aldeko **ingurumen-inpaktuaren deklarazioaren edo txostenaren** kopia aurkeztu beharko da

Zaraten arloan udalak ikuskatzeko eta kontrolatzeko duen ahalari dagokionez, udalaren eskumenekoa da titularrari eskatzea zuzendu ditzala ez-betetzeak edo akatsak, Euskadiko ingurumen-administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 100. artikuluan ezarritako ingurumen-legezketasuna berrezartzearen prozedurarekin bat etorritik, ezarritako diren neurri zuzentzaileen nolakotasunarekin bat datorren epean (Euskadiko ingurumen-administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 97. artikulua). Horretaz gain, kasu bakoitzaren eskakizunen arabera neurri babesleak ezarri beharko ditu.

Ildo berari jarraikiz, Ordenantzaren 20. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera araututako arloen ikuskaritza eta kontrolari dagokienez, Arartekoak egokitzat jotzen du azpimarratzea txostenaren arabera, **“proba teknikoa egin beharko litzatekeela homologatutako sonometroarekin”**. Horrenbestez, aurrekarietako informazioarekin ez da egiaztatu Lapuebla de Labarcako Udalak kexagilearen etxean neurketarik egin duenik ezta zarataren immisio-maila egiaztatu duenik ere. Gai hori kexagileak bere etxebizitza zaratarik (edo aplikatzekoa den legerian onartutako gehieneko mugak gainditzen dituzten bestelako immisio kutsatzailerik) gabe izateko duen eskubidetik eratoritzen da, albo batera utzita inguruko gainerako bizilagunen adierazpenak.

Era berean, toki-administrazioaren zehapen-ahalari dagokionez, Euskadiko ingurumen-administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 105. artikuluan eta hurrengoetan, aipatutako udal-ordenantza eta kasu bakoitzean aplikatzekoa den gainerako legerian xedatutakoa beteko da.

Azkenik, etxeetan animaliak izatearen araudia aipatu behar da. Kasu horretan, [Euskal Autonomia Erkidegoan txakur-espeziko animaliak izateari buruzko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuaren](#) 4.4 artikulua jabeen betebeharren ingurukoa da, eta hauxe dio: *“Kode Zibilaren 1905. artikuluan ezarritakoaren arabera, txakurraren edukitzailea edo hartaz baliatzen ari dena izango da txakurrak sortzen dituen kalte, galera eta arazoaren erantzulea; baita txakurrak alde egin badio edo galdu egin bazaio ere”*.

Ildo berari jarraikiz, [Txakurrak izan eta babestearen ordenantza arautzailearen](#) 3. artikulua betebehar hau ezartzen du: *“Txakurraren zaunkek ezarritako parametro akustikoak ez gainditzea bermatu behar du”*.

Hala, etxe partikularretan txakurrak izatea edo horien kopurua gehienara mugatu ahal izango du udal-agintaritza eskudunak inguruabarren arabera. Besteak beste, ez da arrisku- edo deserosotasun-egoera objektiborik egon behar bizilagunentzat,





beste herritar batzuentzat, txakurrarentzat edo beste animalia batzuentzat (Ordenantzaren 6.2 artikulua).

Era berean, Ordenantzak berariaz debekatzen du txakurrak ohiko moduan balkoietan, garajeetan, pabilioietan, sotoetan, teilatuetan, lorategietan edo beste edozein hirigintzako lokal edo lursailetan edukitzea edo ukuiluratzea, betiere, modu horretan auzotarrei edo oinezkoei eragozpen objektiboak eragiten badizkiete (10.2e) artikulua). Debekatuta dago baita ere animaliak ukuiluratze edo erdi-ukuiluratze erregimenean ohiko moduan egotea hiri-lursailetan (10.2.f) artikulua).

Horregatik guztiarengatik, Arartekoak ondorioztatu du Udalak ez duela txakurrak zaintzeko etxeko eskorta-jarduera egiaztatu, zaindu, ikuskatu eta zehatu, ingurumen-araudiak eta udal-ordenantzak dioten bezala. Horrenbestez, egokitzat jotzen du gomendio hau egitea:

GOMENDIOA

Arartekoak Lapuebla de Labarcako Udalari gomendatzen dio, egindako ingurumen-salaketari erantzunez eta Euskadiko ingurumen-administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean jasotakoarekin bat etorriz, etxeko eskorta-jarduera erregularizatzeko aldera jarduteko eta, era berean, beharrezko neurri zuzentzaileak ezartzeko kexagileak salatutako enbarazuei erantzute aldera.

